

# **Etika eta Berme Kodea**

**Unibasq – Euskal Unibertsitate  
Sistemaren Kalitate Agentzia**

EUSKAL UNIBERTSITATE  
SISTEMAREN KALITATE  
AGENTZIA  
AGENCIA DE  
CALIDAD DEL SISTEMA  
UNIVERSITARIO VASCO



© Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia  
San Prudentzio kalea 8, 01005 Gasteiz  
[www.unibasq.eus](http://www.unibasq.eus)

Unibasqeko Gobernu Kontseiluak 2025eko urtarrilaren 9an onartua, Unibasqeko Aholku Batzordearen idazketa-proposamen batetik abiatuta. Proposamen hori, aldi berean, Unibasqeko Gobernu Kontseiluak 2019ko uztailearen 15ean onartutako Kodearen aurretiazko bertsio batean oinarrituta zegoen.

## AURKIBIDEA

### **1. Etika- eta berme-kode baten izaera eta irismena**

### **2. Testuingurua, helburuak, aplikazio-eremuak eta zabalkundea**

2.1. Araudiaren eta axiologiaren testuingurua

2.2. Justifikazioa eta helburua

2.3. Etika eta Berme Kodearen onarpena eta berrikuspena

2.4. Aplikazio-eremuak

2.5. Etika eta Berme Kodearen publikotasuna eta konpromiso etikoen sustapena

### **3. Etika eta Berme Kodearen oinarrian dauden printzipio eta balioak**

3.1. Zerbitzu publikoarekiko konpromisoak eta erantzukizunak

- Independentzia
- Gardentasuna eta gobernu ona
- Gizarte-erantzukizuna
- Etengabeko hobekuntza eta berrikuntza

3.2. Barne- eta kanpo-laneko estiloak eta prozedurak

- Inpartzialtasuna
- Zorroztasuna eta objektibotasuna
- Konfidentzialtasuna
- Efizientzia eta eraginkortasuna
- Elkarlan-kultura eta talde-lana

### **4. Unibasqekin lankidetzan diharduten pertsonen eskubideak eta betebeharrak**

4.1. Laguntzaileen eskubideak

4.2. Laguntzaileen betebeharrak

4.3. Bateriaezintasun-arrazoiak

4.4. Parte ez hartzea eta errefusazioa justifikatzen dituzten inguruabarrak

## 5. Etika eta Berme Batzordea

5.1. Osaera eta funtzionamendua

5.2. Batzordearen eskumenak eta jarduketak

## Azken gogoetak

### I. ERANSKINA

Unibasqeko Etika eta Berme Kodearen onarpena

Konfidentzialtasunaren, inpartzialtasunaren eta interes-gatazkarik ezaren adierazpena

### 1. Etika- eta berme-kode baten izaera eta irismena

Adierarik konbentzionalenetan, *kode* hitza arau-printzipio edo -manuen multzoei lotu ohi zaie, eta, printzipio edo manu horietan, testuinguru edo errealitate jakin batean giza ekintzari datxezkion konpromisoak eta erantzukizunak identifikatu, orientatu eta/edo arautzen dira. Espazituki eta sistematikoki, pertsonak eta erakundeek eskuratzen edo beren buruarekin, gizartearentzat eta gizartearekin garatzen dituzten balio, jardunbide, prozedura, betebeharrak, funtzio eta eskumenak aipatzen dituzte, besteak beste.

Kodeen enuntziatuetan proposatzen eta xedatzen denari erreparatuta, hauxe da aintzat hartzekoa: haien oinarrian dauden printzipioak, lortu nahi dituzten xede edo helburuak, aplikatzeko irizpideak eta baldintzak, eta betebeharrak, kodeen izenean sustatzen diren jarduketekin zuzenean edo zeharka lotutako ekimenetan parte hartzen duten pertsonak —banaka eta, *ad hoc* sortutako batzordeen bidez, kolektiboki— beren gain hartzen dituztenak.

Aipatzen diren betebeharretatik harago, bizikidetzaren justu eta baketsu, inklusibo eta ekitatiborako eskubideak babesten dituzten bermeen erreferentzia bat dira *kode etikoak*, eta eguneroko errealitateetan askatasuna, lankidetzaren integritatea, gardentasuna, elkarrizketa eta giza duintasuna oinarri dituzten izateko eta egiteko moduak proiektatzeko premia nabarmentzen dute. Hortik datozkie beren eskakizun etiko eta moralak, beren edukiak zehazten dituzten esparru, prozesu, metodo eta inguruabarrak hobetzen laguntzeko borondate garbiarekin bat datozenak. Horrelakoxea da Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak (aurrerantzean Unibasq) hartuko duena.

## **2. Testuingurua, helburuak, aplikazio-eremuak eta zabalkundea**

Unibasqek bere jarduketa-eremuko gizartearen behar eta eskaerei erantzutea du xede, eta bere helburuak betetzeko nortasun juridikoa eta gaitasun osoa ditu.

Etika eta Berme Kodeak bat etorri behar du helburu horiekin, bai araudiaren ikuspegitik, bai ikuspegi axiologikotik. Horretarako, Kodearen eraginpean dauden pertsona guztiei justifikatu behar dizkie bere helburuak, printzipioak, aplikazio-irizpide eta -eremuak, publikotasuna eta zabalkundea, besteak beste. Gainera, Kodea inspiratzen duten balioak —Kodea osatzen duten ataletan jasotako alderdiak balio horiei lotzen zaizkie— pertsona horien barneko zein kanpoko dinamiketan txertatu behar dira.

### **2.1. Araudiaren eta axiologiaren testuingurua**

Funtsean, Euskal Unibertsitate Sistemaren kalitatea hobetzen laguntzeko sortu zen Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia, eta sistema horren kalitatea ebaluatzea, egiaztatzea eta ziurtatzea du helburu, Espainiako, Europako eta nazioarteko esparruan.

Kalitate-agentzia den aldetik, Unibasqek bere gain hartu ditu, sortu zenetik, gizartearekin eta unibertsitateekin dituen betebeharrak, eta, bere ebaluazioei prestigioa emateaz gain, bere jarduketan kalitatea eta etengabeko hobekuntza ziurtatzeko ahalegina egiten du, bere funtzioak —arudiak aitortzen eta bermatzen dituenak— objektibotasunez, zorroztasunez, inpartzialtasunez eta independentziaz garatuz. Helburu horiek zehazten dute Etika eta Berme Kodea, bai eta Unibasqen eta Agentziarentzat lan egiten duten edo zerbitzuak egiten dituzten pertsonen jarduketa guztiak gidatu behar dituzten balioak, printzipioak, xedapenak eta jardunbideak ere. Beraz, Unibasqen identitate-ezaugarri nagusietakoa da Kodea, eta Agentziak konpromisoa du hura errespetatzeko, zabaltzeko eta aplikatzeko, bere eskumenak gauzatzean.

Kodea diseinatzeko eta onartzeko, erreferentzia gisa eta lege-izaerako beste alderdi batzuen artean, aplikazio orokorreko oinarrizko printzipioak sartu dira funtzio publikoko zerbitzu guztietan, bai eta unibertsitate-zereginaren eta ziurtatzeko, egiaztatzeko eta ebaluatzeko jardueraren printzipio espezifikoagoak ere. Nolanahi ere, ezin da alde batera utzi Unibasqek Europarako bokazioa eta ikuspegia dituela. Hori agerian geratzen da nazioarteko goi-mailako hezkuntza-agentzia eta -erakunde nagusiek —bereziki *Standards and Guidelines for Quality Assurance in the European Higher Education Area (ESG)* deitutakoak— bere egiten dituzten balio, printzipio eta estandarretan.

Kodeak Unibasqeko Etika eta Berme Batzordea izendatzen du, hura betetzen dela zaintzeaz arduratzeko. Kodea urratu dela edo Agentziak esleituta dituen zereginetan objektibotasuna edo gardentasuna arriskuan jar ditzakeen interes-gatazka edo bestelako jarduketaren bat dagoela hautematen duen edonork dagozkion erreklamazioak edo alegazioak aurkeztu ahal izango ditu, Batzorde horren aurrean, ezartzen diren prozeduren bidez.

Unibasqeko zuzendaritzak, gobernu-organismoek, langileek eta Agentzian edo Agentziarentzat lan egiten duten pertsona guztiek erakundean izaera etiko eta

gizartearekiko arduratsua sustatzeko betebeharra dute. Horretarako, Etika eta Berme Kodea betetzen dela zainduko dute, eta ziurtatuko dute beren jarduketetan Kodearen printzipioei atxikitzen zaizkiela agindutako eginkizun guztietan.

## **2.2. Justifikazioa eta helburua**

Agentziak printzipio eta arau batzuk behar ditu, bere barruan kalitatearen, konfiantzaren, gardentasunaren, deontologiaren, etikaren eta gizarte-erantzukizunaren irizpideei jarraituz jardun ahal izateko, eta behar horren ondorio da Unibasqeko Etika eta Berme Kodea. Printzipio horiek, era berean, baliagarriak izan behar dira, partekatutako eta lan-metodoetan eta gizartearekiko harreman eta jarduketetan integratutako balioak beteko dituen giroa sortzeko.

Hala, betetzen den lanpostua edo egiten den zeregina edo jarduera edozein direla ere, Kodearen helburu nagusia da Agentziaren kultura instituzionala definitzen duten printzipioak eta balioak formalizatzea, bai eta Unibasqentzat lan egiten dutenengan edo harekin lankidetzan dihardutenengan —bertako edo kanpoko langile gisa— eguneroko zereginetan eta harreman profesionaletan espero daitezkeen portaerak, jarrerak eta jokabideak formalizatzea ere. Horretarako, batzordeak eta komiteak eratzen dira, besteak beste.

Etika eta Berme Kodearen oinarrian dauden printzipio eta balioekin ahalik eta koherentziarik handiena lortu nahian, Agentziaren jarduketan objektibotasuna, ekitatea eta berdintasuna, aginpidea edo egokitasuna, zorrotasuna eta gardentasuna bermatu nahi dira, Kodearen bidez, kalitatea ebaluatzeko, egiaztatzeko eta ziurtatzeko prozesuetan.

## **2.3. Etika eta Berme Kodearen onarpena eta berrikuspena**

Unibasqeko Gobernu Kontseiluari dagokio Agentziaren Etika eta Berme Kodea onartzea eta aldatzea, Agentziaren jarduketak objektiboak eta inpartzialak direla bermatzeko, Kodea egitea eta aplikatzea eragin duten printzipioekin eta balioekin bat etorrita.

## **2.4. Aplikazio-eremuak**

Etika eta Berme Kodea hauei aplikatuko zaie, barrura begira: Unibasqen lan egiten duten edo harekin lankidetzan diharduten edo harremanak dituzten pertsona guztiei, bai eta Euskal Unibertsitate Sistemako goi-mailako hezkuntza-erakundeetan eta Unibasqekin lotura-, prestazio- edo lankidetzeta-motaren bat duten beste erakunde edo interes-talde batzuetan lan egiten duten edo haiekin lankidetzan diharduten edo harremanak dituzten pertsona guztiei ere.

Hortaz, hauek dira Kodea bete behar dutenak: Agentziako zuzendaria; dagokionean, zuzendariaren ondokoa eta gobernu-organoak; arloei atxikitako langileak; organo teknikoak eta ebaluazio-organoak, eta horiek osatzen dituzten pertsonak edo Unibasqi ziurtapen-, aholkularitza-, egiaztapen- edo ebaluazio-zerbitzu profesionalak egiten dizkietenak.

## **2.5. Kodearen publikotasuna eta konpromiso etikoen sustapena**

Aplikatzea dagokien pertsona guztiek ezagutu behar dute Kodea. Hori dela eta, Unibasqek konpromisoa hartu du bere langileei eta Agentziarekin lankidetzan diharduten pertsoneri Kodeari buruzko informazioa eta prestakuntza emateko, haren balio, printzipio eta konpromisoak uler ditzaten eta erabiltzen ikas dezaten. Horretarako, Agentziaren webgunean publikotasuna emateaz gain, haren berri emango zaie bai plantilla osoari, bai ziurtapen-, aholkularitza-, egiaztapen- edo ebaluazio-zerbitzuren bat egiten duten pertsoneri.

Kodearen berri emanez, hura egitea, aplikatzea, hobetzea eta abar eragiten duten zirkunstantziei buruzko irakurketa kritiko eta gogoetatsua sustatuko da, maila instituzionalean zein pertsonalean aplikatzeak dakartzan konpromisoak azpimarratuz. Hori dela eta, Agentziarekin lan egiten duten edo lankidetzan diharduten pertsona guztiek adierazpen bat sinatu beharko dute, Etika eta Berme Kodearekiko erabateko atxikimendua berresteko (I. ERANSKINA: Unibasqen Etika eta Berme Kodearen onarpena – Konfidentziasunaren, inpartziasunaren eta interes-gatazkarik ezaren adierazpena).

## **3. Etika eta Berme Kodearen oinarrian dauden printzipio eta balioak**

Unibasqek Euskal Unibertsitate Sistemaren kalitatea hobetzeko dagoen interes publikoa asetzea lortu nahi du bere lanarekin. Hori guztia, gizarte demokratiko batean; hau da, giza eskubideetan, askatasunean, berdintasunean, garapen jasangarrirako helburuetan, nortasunaren garapen askean eta, bereziki, pertsonen bizitza osoan zehar ikastea sustatuko duen kalitatezko hezkuntza inklusibo eta ekitatiborako eskubidean oinarritutako gizarte demokratiko batean.

Asmo horiekin, eta esplizituki, kontuan hartu beharreko zenbait printzipio eta balio sartu ditu Etika eta Berme Kodean, hala nola bere ustez zerbitzu publikoarekin dituen erantzukizunen, bere lan-estiloaren, unibertsitateekin eta prestakuntzarekin dituen konpromisoen, eta tokian eta nazioartean gizartea hobetzearen oinarri izan behar duten printzipioak eta balioak.

Unibasqek badaki kalitateak, zerbitzuak eta bikaintasunaren eta berrikuntzaren kulturak bere jardura guztietan duten balioa, eta, horretarako, zerbitzuak etengabe hobetzen ditu eta bere jarduketak nazioarteko aintzatespen zabala duten printzipio eta irizpideetara egokitzen ditu.

### **3.1. Zerbitzu publikoarekiko konpromisoak eta erantzukizunak**

Interes orokorrei zerbitzu egiteko printzipioak ase nahian eta herritarren premia eta eskaerei, xede dituen pertsona nahiz kolektiboek, eta Euskal Unibertsitate Sistemarekin eta gizartearekin konprometituta dituen jarduketei erantzun nahian, Unibasqek printzipio

hauen inguruan bere gain hartzen dituen konpromisoak eta erantzukizunak adierazten ditu Etika eta Berme Kode honetan:

▪ **Independentzia**

Unibasqek askatasunez eta autonomiaz beteko ditu dagozkion eginbeharrak, bere misioa betetzea errazteko eta bere jarduketan profesionaltasuna eta sinesgarritasuna areagotzeko. Unibasqen edota Unibasqentzat lan egiten dutenek ez dute utziko kanpoko presioek, eraginek edo esku-hartzeek eraginik izan dezaten beren irizpideen, iritzien eta jarduketa-printzipioen zorrotasunean eta/edo erabakiak hartzeko ahalmenean.

▪ **Gardentasuna eta gobernu ona**

Unibasqek modu fidagarrian, osorik, behar adinako aurrerapenez eta argitasunez eskainiko du bere ebaluazio eta jardueretan erabiltzen dituen ebaluazio-irizpide eta -prozesuei, prozedurei, inprimakiei eta tresnei buruzko informazio guztia, eta ez du zerbitzuen erabiltzaileek eskuratzeko eskubidea duten ezein argibide ezkutatuko.

Era berean, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruz aplikatzekoak zaizkion lege-xedapen guztiak beteko ditu, eta bere webgunean gardentasun-atari bat izango du. Oso-osorik errespetatuko ditu legezkotasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioak, baita datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruz aplikatzekoak den legerian jasotakoak ere.

▪ **Gizarte-erantzukizuna**

Egoerak ahalbidetzen duen neurrian, Unibasqek kontuan hartuko du egindako zerbitzuek gizartean duten inpaktua, eta ingurumenaren babesa eta jasangarritasunaren kultura sustatuko ditu. Horretarako, komunikazio-mekanismoak ezarriko ditu Euskal Unibertsitate Sistema hobetzen inplikaturako interes-talde guztiekin, eta informazioa, iritzia eta ezagutzak trukaturako, bere eginkizunekin lotutako jarduera, zerbitzu eta emaitzak etengabe hobetzen laguntzeko.

Edonola ere, Unibasqek euskal unibertsitateen autonomia eta aniztasuna errespetatuko ditu bere jardunean, eta unibertsitateen arteko eta unibertsitateekiko lankidetzak eta komunikazioa hobetzea bilatuko du.

▪ **Etengabeko hobekuntza eta berrikuntza**

Agentzia kanpoko ebaluazioaren eta ziurtapenaren mende jarriko da, prozedurak eta bere funtzioetan desiragarritzat jotzen diren emaitzak etengabe hobetzeko. Interes orokorren mesedetan, gizartearen, unibertsitate-komunitatearen eta bere jarduketekin lotuta dauden pertsonen premia eta eskaerei erantzungo die. Haien konfiantza lortzen saiatuko da jarduketa guztietan; horretarako, diseinatzen eta

ezartzen dituen prozesuak hobetzen eta berritzen ahaleginduko da etengabe, prozesu koherente, efiziente, eraginkor eta arinak izan daitezen.

### **3.2. Barne- eta kanpo-laneko estiloak eta prozedurak**

Bere prestazioak eta zerbitzuak unibertsitate-hezkuntzaren hobekuntzan garrantzitsuak direla onartuta, Agentziak tratu pertsonalizatua sustatuko du solaskideekin, bai barne-mailan, bai unibertsitateekin eta, oro har, gizartearekin ezartzen dituen harremanetan, eta egiten dituen zerbitzuei buruzko informazio argia eta ulergarria ematen saiatuko da.

Agentziako langileek, zuzendaritza-organoek eta ebaluazio-batzordeek pertsonen eta erakundeen beharrak errespetatuko dituzte; erantzukizunez, zuzentasunez eta zintotasunez jokatuko dute; zerbitzuak ahalik eta profesionaltasunik handienarekin, inpartzialtasunez eta bizkor egingo dituzte, eta pertsona eta erakunde interesdunei behar bezala arrazoituta jakinaraziko dizkiete emaitzak eta hartutako erabakiak, deialdi bakoitzaren eta kasuan kasuko arau-xedapenen esparruan zehaztutako protokoloek eta jardueren jarraituz. Ildo horretan, Etika eta Berme Kodeak printzipio hauek hartzen ditu kontuan:

#### **▪ Inpartzialtasuna**

Agentziak eta harentzat zerbitzuak egiten dituzten pertsonen ahalegin guztiak egingo dituzte inpartzialak izateko banaka zein taldean ematen dituzten judizioetan; hortaz, ez dute inolako diskriminaziorik egingo, eta genero-ekitatea eta gizonen eta emakumeen benetako berdintasuna lortzen lagunduko dute. Aniztasuna aintzat hartuta eta berdintasuna eta inklusioa sustatzen lagunduko duten irizpideei dagokienez, ebaluazio- eta ziurtapen-estandarretan txertatuko dira horiek, ahal den neurrian.

Agentziako organoetako kideek beren izenean eta beren irizpide propioei jarraikiz egiten dute lan; hau da, ezin da inola ere ulertu kide diren erakunde, kolektibo, elkarte edo antzeko taldeen ordezkari gisa jarduten dutenik. Era berean, ez dute kontuan hartuko Unibasqek egiten dituen zerbitzuekin lotutako prozesuetan parte hartzen duten pertsonen, erakundeen, taldeen edo kolektiboen aldeko edo aurkako alde aurreko judiziorik, eta ezein jardueratan parte hartzeari uko egingo diote, baldin eta beren zuzentasuna edo inpartzialtasuna zalantzan jartzen duen interes-gatazkarik badago.

#### **▪ Zorroztasuna eta objektibotasuna**

Unibasqeko langileak eta laguntzaileak hauetan oinarrituko dira, soilik, beren jardueretarako: ebidentzien egiazkotasunean eta beren jarduketan eta beren eskumenen esparruan hartutako erabakien bereizgarri izan behar duen zorroztasun zientifiko-teknikoan, alde aurreko balio-judizioak kontuan izan gabe. Bestalde, deialdi, sistema edo ebaluazio-prozesuetan arauz jasotzen diren oinarriak, irizpideak, prozedurak, estandarrak eta bestelako erreferenteak aintzat hartzeaz gain, egiaztatzen diren merezimendu objektiboak eta eskatutako eginkizunerako egokitasuna bakarrik hartuko dituzte kontuan balorazioetan.

Unibasqekin lankidetzan diharduten pertsonak Kode honetan jasotako arauak eta printzipioak beteko dituzte, beren egintzetan, eztabaidetan, iritzietan eta hartzen dituzten erabakietan.

#### ▪ **Konfidentzialtasuna**

Unibasqek bere esku dauden datu pertsonalak behar bezala kudeatzeko beharrezko mekanismoak ezarriko ditu, indarrean dagoen legerian aurreikusitakoari jarraikiz. Horretarako, datu pertsonalen konfidentzialtasuna ziurtatzeko mekanismo eraginkorrak ezarriko ditu. Agentziak ezin izango du eskualdatu, inola ere, ebaluatutako pertsonak emandako datu pertsonalei buruzko informaziorik, interesdunak espresuki baimendu ez badute edo informazio hori ematea agintzen duen ebazpen judizialik ez badago.

#### ▪ **Efizientzia eta eraginkortasuna**

Unibasqeko zuzendaritza, langileak eta Unibasqekin lankidetzan diharduten organo eta pertsona guztiak behartuta daude beren funtzioetarako esleitzen zaizkien baliabideak —azpiegiturakoak, materialak eta ekonomikoak— egoki, eraginkortasunez eta efizientziaz erabiltzera. Unibasqek gardentasunez kudeatuko ditu bere baliabide ekonomikoak, eta, beraz, arrazionaltasunez, independentziaz, efizientziaz eta eraginkortasunez administratuko ditu; hau da, Euskal Unibertsitate Sistemarentzat ahalik eta modurik onenean. Eskakizun hori baliabideen jatorriari nahiz erabilera arduratsuari aplikatuko zaie.

#### ▪ **Elkarlaneko kultura eta talde-lana**

Talde-lana, erakunde- eta lan-giro ona, lankidetzak, etengabeko prestakuntza eta trebakuntza, eta ebaluatzaileen eta Unibasqeko langileen artean informazioa eta ideiak trukatzeko jarduerak beharrezkoak izango dira Unibasqek bere helburuak lortzeko. Era berean, Euskal Unibertsitate Sistemako agenteek Unibasqen estrategiak eta ekintza-lerroak definitzen parte-hartze aktiboa izan dezaten saiatuko da Unibasq, eta estrategia eta ekintza-lerro horietan txertatuko ditu aurre egin beharreko erronkak, unean uneko egoera, premia eta eskari berriak kontuan hartuta etorkizunera begiratuz.

## **4. Unibasqekin lankidetzan diharduten pertsonen eskubideak eta betebeharrak**

Etika eta Berme Kodeak hainbat betebeharrak esleitzen dizkie beren eginkizunekin lotutako ekimenetan, prozesuetan, jardunbideetan edo antzekoetan parte hartzen duten pertsona guztiei, bai programak garatzeko eratutako batzordeetan unean-unean edo epealdi jakin baterako dauden kideei, bai Unibasqekin aldi baterako lankidetzan jarduten duten adituei.

Pertsona horiek, Unibasqekin dituzten loturak edozein direla ere, banaka eta/edo taldeka aplikatzekoak diren eskubide batzuen babespean egongo dira; halere, agintzen zaizkien

jarduketak egitean beren gain hartu beharko dituzte zenbait betebeharrak. Edonola ere, ezin dira alde batera utzi pertsona horien bateraezintasuna eragin dezaketean arrazoiak, ezta abstentzioa eta errekusazioa ere, horiek justifikatzen dituen egitaterik edo arrazoirik badago.

#### **4.1. Laguntzaileen eskubideak**

Unibasqen programak garatzeko eratzen diren batzorde eta komiteetako kide orok, baita Agentziarekin lankidetzan diharduen aditu orok ere, eskubide hauek ditu:

- Hartu behar dituen erabakietan bere iritzi-independentzia erabat errespetatzea, eta balizko injerentzien aurrean babestea.
- Bere eginkizunak betetzeko, Unibasqen laguntza eta babes teknikoa jasotzea, horretarako prestakuntza egokiaz gain.
- Kide anitzeko bilkuretan espedienteren batean esku hartu behar badu, hari buruzko informazio aurreratua izatea.
- Batzordean hartzen diren kide anitzeko erabakiekiko desadostasuna adieraztea, boto partikularra emanez.
- Unibasqekin egiten duen lankidetzaz-jarduera aitortua eta egiaztatua izatea, arauz ezarritako baldintzetan eta horretarako prestatzen diren prozedurak erabiliz.
- Ordainsariren bat eskuratzea, Unibasqeko Gobernu Kontseiluaren erabakietan ezarritakoaren arabera.

#### **4.2. Laguntzaileen betebeharrak**

Unibasqen programak garatzeko eratzen diren batzorde eta komiteetako kide orok, baita organismoarekin lankidetzan diharduen aditu orok ere, dagozkion eginkizunekin lotutako erantzukizun edo betebeharrak bere gain hartuz, konpromiso hauek hartzen ditu:

- Ebaluazio-, ziurtapen- eta egiaztapen-prozesuetan objektibotasunez, inpartzialtasunez, independentziaz, gaitasunez eta zorrotasun zientifiko-teknikoz jardutea.
- Hainbat arrazoiengatik ebaluazio-, ziurtapen- eta egiaztapen-prozesuak gauzatzeko muga pertsonal espezifikorik badu —esate baterako, eskatzen zaion espezializazio zientifiko-teknikoarekin lotutakorik—, halakorik baduela aitortzea.
- Neutraltasun osoz, autonomiaz eta bere izenean jardutea, partaide den erakunde akademikoekin eta elkarte profesionalekin dituen konpromisoak alde batera utzita.
- Agintzen zaizkion zereginak behar bezala gauzatzeko beharrezkoa den dedikazioarekin jardutea, garaiz eta forman.

- Esleitzen zaizkion eta onartzen dituen espedienteen balorazioan ezarrita dauden prozeduretara mugatzea, kide anitzeko erabaki eta akordioetan parte hartzea, eta hartutako erabakiak behar den moduan arrazoitzea.
- Zuzenean edo zeharka interes-gatazka sor dezakeen egoerarik badago zenbait arrazoiengatik —lotura akademikoa, profesionala, pertsonala, familiarra edo adiskidetasunekoa, kideetasunekoa, lehiakoa, emulaziokoa edo bestelakoa, alde zurekoa nahiz gerora sortutakoa—, haren berri ematea Unibasqen dagokion ebaluazio-programaren arduradunari. Orobat, Kode honetan adierazitakoaren arabera abstenitzera behartzen duten kausen berri ere emango du.
- Ebaluazio-prozesuaren ondorioz eskatzaileen datu pertsonalak ezagutzen baditu, erabateko erreserbari eta konfidentzialtasunari lotzea, izaera pertsonaleko datuen babesaren alorrean aplikagarri zaion araudia kontuan izanik.
- Batzordeen eztabaidak eta haietako kideen irizpideak edo jarrerak isilpean gordetzea, oro har eta eskatzaileei dagokienez bereziki, baita haiei horretarako ezarritako bideetatik oraindik formalki jakinarazi ez zaizkien ebazpenen nondik norakoa ere.
- Ebaluatzaileek beren eginkizuna betetzeko eskura dituzten aplikazio informatikoen eta datu-baseen sarbiderik ez ematea hirugarrenei.
- Unibasqi kontsultatzea ea bateragarria den aldi berean Agentziako batzorde edo ebaluazio-panel bateko kide izatea eta Estatuko edo nazioarteko beste egiaztapen- eta ebaluazio-agentzia edo -erakunde batzuetako batzorde edo panel bateko kide izatea, horien eta Agentziaren helburu guztiak edo batzuk berdinak badira, berdin diolarik kideza iraunkorra edo aldi baterakoa den.
- Etika eta Berme Batzordearen erabakiak aplikatzea eta haren errekerimenduak aintzat hartzea.

### 4.3. Bateriaezintasun-arrazoiak

Unibasqek eta harentzat zerbitzuak egiten dituzten pertsonak ahalegin guztiak egingo dituzte beren judizioetan inpartzialak izateko, Etika eta Berme Kode honetan ezarritakoa betez; hortaz, ez dute inolako diskriminaziorik egingo, ezta eragingo ere.

Agentziako organo, komite, batzorde edo antzekoetako kideek edo Agentziarentzat ebaluazio espezifikokoak egiten dituzten pertsonak beren izenean eta irizpide propioei jarraituz egiten dute lan; beraz, ez dute ordezkatzeko kide diren edo atxikita dauden kolektiboak edo erakundeak. Ez dute kontuan hartuko Unibasqek egiten dituen zerbitzuekin lotutako prozesuetan parte hartzen duten pertsonen aldeko edo aurkako alde zureko judiziorik, eta ezin jardueratan parte hartzeari uko egingo diote, baldin eta beren inpartzialtasuna zalantzan jartzen duen interes-gatazkarik badago.

Pertsona fisikoek egindako egiaztapen- edo ebaluazio-eskaeren kasuan —proiektuak edo ikerketa-taldeak erreferentziatzen dituztenak ere sartzen dira—, hauek dira ebaluazioa egiteko bateraezintasun-arrazoiak:

1. Eskatzailearen unibertsitate berekoa izatea edozein figura akademikotan (irakasleak eta ikertzaileak); administrazioko eta zerbitzuetako langileak, irakasle bisitariak eta antzekoak ere sartzen dira.
2. Laugarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasuna izatea eskatzailearekin.
3. Eskatzailearekin edo harekin lotura estua duten eta irakaskuntza- edo ikerketalanak egiten dituzten pertsonekin loturak izatea: familiarrak, adiskidetasunekoak, kideatasunekoak, lehiakoak, emulaziokoak edo bestelakoak.
4. Berriarazko ebaluazio- eta egiaztapen-prozesua egiteko ezagutza zientifiko-tekniko egokiak —eskatutako espezializazio zientifiko-teknikoaren ondoriozkoak— ez izatea.
5. Bakarrik edo beste batzuekin batera eskatzailearen doktorego-tesiaren zuzendari-lanak bere gain hartu izana.
6. Eskatzailearekin edo harekin lotura estua duten ikertzaileekin ikerketa- eta berrikuntza-proiektu edo -taldeetan, sare-lanean edo antzekoetan parte hartzea edo parte hartu izana.
7. Eskatzailearen edo harekin lotura estua duten ikertzaileen egilekidea izatea artikuluetan, liburu-kapituluetan, liburuetan, txostenetan, kongresuetako txostenetan edo antzekoetan.
8. Eskatzailearekin auzi bat izatea edo iraganean eduki izana.
9. Interes pertsonala izatea kasuan kasuko gaian edo prozesuetan, edo haien ebazpenean eragina izan dezakeen beste batean.
10. Egiaztapenean edo ebaluazioan parte hartzen duen pertsonaren objetibotasuna edo inpartzialtasuna baldintzatzen edo kaltetzen duen interes-gatazka bat sor dezakeen beste edozein egoera.

Beste erakunde batzuek (unibertsitate-zentroek, unibertsitateek eta abarrek) egindako ziurtapen-, egiaztapen- edo ebaluazio-txostenen eskaerei dagokienez, hauek dira bateraezintasun-arrazoiak:

1. Erakundea atxikita dagoen unibertsitate berekoa izatea edo unibertsitate horretan irakasle bisitaria edo antzekoa izatea, edo azken lau urteetan edozein motatako zerbitzu profesionalak egin izana zentro edo erakunde eskatzailean.
2. Erakunde eskatzailea (zentroa, unibertsitatea eta abar, eskaera egiten duen erakundearen arabera) ordezkatzan duten pertsonekin laugarren maila arteko odolkidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza-ahaidetasuna izatea.
3. Ebatzi gabeko auzi bat izatea edo eduki izana erakunde eskatzailea atxikita dagoen unibertsitatearekin edo erakunde eskatzailea (zentroa, unibertsitatea eta abar, eskaera egiten duen erakundearen arabera) ordezkatzan duten pertsonekin.

4. Interes pertsonala izatea kasuan kasuko gaien edo prozesuetan, edo haien ebazpenean eragina izan dezakeen beste batean.
5. Erakunde eskatzailea (zentroa, unibertsitatea eta abar, eskaera egiten duen erakundearen arabera) ordezkaten duten pertsonekin adiskidetasun estua edo etsaitasun nabarmena izatea.
6. Egiaztapenean, ziurtapenean edo ebaluazioan parte hartzen duen pertsonaren objetibotasuna edo inpartzialtasuna baldintzatzen edo kaltetzen duen interes-gatazka bat sor dezakeen beste edozein egoera.

#### **4.4. Parte ez hartzea eta errekusazioa justifikatzen dituzten inguruabarrak**

Aurreko paragrafoan aipatutako bateraezintasun-arrazoiren bat gertatzen bada, eragindako espedientea ziurtatzen, egiaztatzen edo ebaluatzen parte hartzen duen pertsonak Unibasqen dagokion ebaluazio-programaren arduradunari jakinarazi beharko dio.

Ahalik eta lasterren egingo da hori, baldin eta zuzenean edo zeharka interes-gatazka sor dezakeen egoerarik badago aldez aurretik edo gerora sortutako zenbait zirkunstantzia edo arrazoiengatik —adiskidetasuna, kideetasuna, lehia, emulazioa edo bestelakoa—. Arduradun horrek eta/edo Agentziako Zuzendaritzak proposatuta egokitzat joz gero, kausa hori Etika eta Berme Batzordeari igorriko zaio, baloratu eta behar bezala ebatz dezan. Aipatutako bateraezintasun-arrazoietako bat egonez gero, pertsona prozesu horretatik ateratzea aginduko du Batzordeak, aurreikusitako egitatearen supostua betetzen dela egiaztatu ondoren. Erabakia hartzeko, kontuan hartuko dira erabakia eragin duten arrazoiaren izaera eta irismena, eta ea pertsonaren objektibotasuna eta inpartzialtasuna arriskuan jartzeko adinakoak diren.

Baztertutako pertsonari esleitu zitzaion zeregina eskaeraren txostena idaztea edo egiaztapen instituzional baten edo titulazio baten bisita-paneleko kide izatea bada, beste pertsona bat izendatu beharko da haren ordezkari aritu dadin. Aitzitik, beste pertsona batzuek zenbait espedienterik inguruan egindako txostenen arabera erabaki bat hartu behar duen batzorde bateko kidea bada, eta espediente horietako batean hark parte ez hartzeko arrazoirik badago —eta horregatik baztertua izan bada—, utzi egin beharko du bilera, batzordeko gainerako kideek espediente jakin horri buruz eztabaidatu eta erabakia hartu behar dutenean. Kasu horretan, ez da ordezkari izendatuko, batzordeko gainerako kideek hartuko baitute erabakia.

Aurreko apartatuan aipatutako bateraezintasun-arrazoiren bat badago baina Etika eta Berme Batzordeari ez bazaio kidea baztertzea eskatu, eta batzordeak ez badu ofizioz jardun, interesdunek prozeduraren edozein momentutan eska dezakete pertsonaren errekusazioa. Errekusazioa idatziz aurkeztu behar zaio Unibasqeko Etika eta Berme Batzordeari, eta, hartan, errekusaziorako arrazoiak azalduko dira. Idazkia errekusatutako pertsonari helaraziko dio Batzordeak, adierazitako bateraezintasun-arrazoia badagoen ala ez azal dezan. Arrazoa badagoela onartzen badu, espedientetik baztertua izango da automatikoki. Azaldutako arrazoa ukatzen badu, ordea, Etika eta

Berme Batzordeak hartuko du erabakia, aldeei entzun eta emandako frogak aztertu ondoren, bere Araudian ezarritakoari jarraituz. Errekusazioa aintzat hartuz gero, pertsona prozesutik baztertzea erabakiko da.

## **5. Etika eta Berme Batzordea**

Unibasqek Etika eta Berme Batzordea izendatuko du, horretarako ezarritako arau-prozedurak erabiliz, esleituta dituen eskumenak eta funtzioak aintzat hartuta, eta betiere Etika eta Berme Kodean xedatutakoari erreparatuta. Batzorde horren osarari dagozkion irizpideak eta, besteak beste, egin ditzakeen jarduketak zehazten dira prozedura horietan.

### **5.1. Osaera eta funtzionamendua**

Kodea betetzen dela zaintzeko ardura duen organoa da Etika eta Berme Batzordea, eta Euskal Unibertsitate Sistematik eta Agentziako gobernu- eta/edo ebaluazio-organo guztietatik kanpoko hiru pertsonak osatuko dute. Gobernu Kontseiluak hautatuko du horietako bat, Aholku Batzordeak beste bat, eta Unibasqeko Ikasleen Aholku Batzordeak hirugarrena.

Batzordeak Unibasqeko plantillako pertsona baten laguntza izango du; langile horrek hitza izango du, baina ez botoa, eta idazkaritza teknikoko zereginak beteko ditu.

Batzordea osatzen duten pertsonak hiru urterako izendatuko dira, eta behin bakarrik berritu ahal izango zaie kargua, epealdi bererako. Ondoren, ezin izango dira berriro izendatu, harik eta kargua uzten dutenetik hiru urte igaro arte.

Batzordekideek Kode honetan jasotako printzipio etikoak hartuko dituzte erreferentzia nagusitzat, eta bertan zehazten diren helburuak eta aplikazio-eremuak hartuko dituzte kontuan. Kodea bete ez izanagatiko erreklamazioak aztertzean, printzipio hauek hartuko dituzte bereziki gogoan: objektibotasuna, inpartzialtasuna, independentzia, konfidentzialtasuna, kontraesana, eragindako pertsonetikiko errespetua eta zentzuzko bizkortasuna.

Organo horren funtzionamendua Batzordeak berak onartuko duen barne-araudi batean zehaztuko da, zeina Agentziako Gobernu Batzordeak berretsi beharko duen, argitaratu eta indarrean sartu baino lehen. Batzordeak onartutako araudiaren edozein aldaketa edo erreforma Unibasqeko Gobernu Kontseiluak berretsi beharko du, eta, ondoren, Agentziaren webgunean argitaratu beharko da.

## 5.2. Batzordearen eskumenak eta jarduketak

Kodearen aplikazioa eta Etika eta Berme Batzordeak aplikazio horretan bere gain hartzen dituen erantzukizunak hainbat eskumen eta zereginen bidez gauzatzen dira; hona hemen laburbilduta:

1. Kodea behar bezala ezartzen, interpretatzen eta aplikatzen dela gainbegiratzea, eta dagozkion aplikazio-eremuetan hori garatzen duten erabaki eta jarduketak onartzea.
2. Parte-hartzeari uko egiteko betebeharraren edo Batzordean aurkeztu diren errekusazio-eskaeren inguruko jakinarazpenak ebaluatzea eta erabakitzea, Kodean horrekin lotutako artikuluetan jasotakoaren arabera.
3. Kodea eta, behar izanez gero, Araudiaren ezartze-maila aldizka berrikustea, eta horien emaitzak Unibasqeko Gobernu Kontseiluari helaraztea.
4. Ziurtapen- eta egiaztapen-erabakien edo Unibasqetik eratorritako ebaluazio-txostenen aurka aurkeztutako errekurtsoei buruz erabakitzea, baldin eta ebaluatutako pertsonaren edo erakundearen alde ezarritako bermeren bat urratzen duen akats formal bat edo prozesuan esku hartu duen pertsonaren baten inpartzialtasunik eza badira errekurtsu horien eragileak. Ebazpenak errekurtsua baiesten badu, erabakia deuseztatu egingo da, eta errekurritutako ziurtapena, egiaztapena edo ebaluazio-txostena berriro egin beharko da. Errekurtsu hori jartzeko prozedura eta kausak Etika eta Berme Batzordearen Araudian garatzen dira.
5. Kodea urratzeagatik aurkeztutako erreklamazioen berri ematea, baldin eta erreklamazio horien oinarria aurreko ataletan zehaztu edo aipatu ez den arazoiren bat bada. Erreklamazio horiek jartzeko prozedura Etika eta Berme Batzordearen Araudian garatzen da.

## Azken gogoetak

Kode honetan jasotako erantzukizunak eta konpromisoak errespetatu egin behar dira, agindutako eginkizunak edo zereginak aurrez aurre nahiz telematikoki egiten badira, kontuan hartuta, betiere, bere eskumenen esparruan programatzen diren jarduerak (batzorde edo komiteen bilerak, bisita-panelak eta antzekoak) garatzeko Unibasqek ezarritakoa.

Edonola ere, Kodean esplizituki edo inplizituki aipatzen diren pertsonen eta erakundeen eskubideak bermatuko dira, Kodearen oinarri diren printzipio etiko eta axiologikoekin bat etorritik, eta Kodearen aplikazio-eremuek Euskal Unibertsitate Sistemaren testuinguruan duten ordenamendu juridikoa betez.

## I. ERANSKINA

### Unibasqeko Etika eta Berme Kodea onartzea

#### Konfidentzialtasunaren, inpartzialtasunaren eta interes-gatazkarik ezaren adierazpena

Nik, [...] (izen-abizenak) jaunak/andreak

Adierazten dut Unibasqen Etika eta Berme Kodea irakurri, aztertu eta barneratu dudala, eta haren printzipio eta balioekin bat egiten dudala, Unibasqen/Unibasqeko ... Batzordean betetzen dudan karguan/postuan ditudan eginkizunetan. Halaber, agintzen dut Unibasqen Etika eta Berme Kodean jasotzen diren betebeharrak beteko ditudala. Eta dagozkion ondoretarako jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut .....(e)n, .....(e)ko .....aren .....(e)(a)n.

(Sinadura)

Sinatzailea: .....

#### *Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa:*

- Arduraduna: Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia.
- Xedea: Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako langileak eta ebaluatzaileak kudeatzea.
- Legitimazioa: kontratu bat gauzatzea eta tratamenduaren arduradunari aplikatu dakiokeen legezko betebeharrak betetzea.
- Hartzaileak: ez zaie daturik emango hirugarrenei, salbu eta legeak hala agintzen badu.
- Eskubideak: datuak eskuratzea, zuzentzea eta ezabatzea, eta beste eskubide batzuk, informazio gehigarrian azaltzen direnez.
- Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Tratamendu Jardueren Erregistroan kontsulta dezakezu.